

FITXA SOZIALA GIZARTE.NET-EN

Agiri honek azalpen orokorrak ditu, fitxa Gizarte.net-en betetzeko zein edukiaren gaineko argibideak.

Espediente berri bat eginda, hurrengo pantailan aukerako datu batzuk sar ditzakegu eta espediente-titularraren fitxa soziala bete behar dugu.

Lehen pantaila horretan fitxaren bi datu agertzen dira: jaiotze-data eta sexua. Hurrengo atalak sakatu behar ditugu eduki nagusia ikusteko: "datu soziobiografikoak" eta "arreta eta balorazioaren arrazoia".

Identifikazioa | Etxeko espedientea | Gizarte-historiala/Esku-hartzeak | Diagnostikoa | APP | Jarraipena | Ebaluazioa | Irten

ETXEKOAK | BIZIKIDETZA-UNITATEKO KIDEA | Mantentzea | Etxeko-unitatearen zk. : 196601012BEBE4801701

Oinarrizko datuak | **Datu soziobiografikoak** | Arreta eta balorazio arrazoia

Gizarte-fitxa

* Etxeko Senidetasuna: Esp. titular

* Izena: Fitxamari

* 2. abizena: Betetzen

* Sexua: Gizona Emakumea

* Identifikazio-agiria: 85254523 NAN (99999999A)

* Telefonoak: [] []

Email: []

Jatorria: Aukeratu bat

Jaioterra: ESPAINIA

* Altaren data: 2014/07/29

* 1. abizena: Berria

* Jaiotze-data: 1966/01/01

Hizkuntza: Aukeratu bat

Erroldatze-data (EAE): 1966/01/01

Erroldatze-data (Lurralde): 1966/01/01

Erroldatze-data (udalerrria): 1966/01/01

Egoera zibila: Aukeratu bat

Ikasketa-maila: []

Espedientea alde aurretik eginda badago, eta fitxaren informazioa bete behar badugu, "etxeko espedientea" izeneko pantailatik helduko gara pantaila horietara, dagokion kidearen ikono horia sakatuz:

Identifikazioa | **Etxeko espedientea** | Gizarte-historiala/Esku-hartzeak | Diagnostikoa | APP | Jarraipena | Ebaluazioa | Irten

Espediente-zerrenda | ETXEKOAK | Etxeko-unitatearen zk. : 196601012BEBE4801701

BUAREN OINARRIZKO DATUAK

Altaren data: 2014/07/29 Erreferentzia profesionala: 076-1-1 076-1-1 Arreten hist.

Udalerrria: BERMEO,BIZKAIA Helbidea: Almika N°-5 PK: 48370 Baimen informatua

Ezabatu espedientea Prozesu bereziak

ETXEKOEN DATUAK

Senidetasuna	Izena	1. abizena	2. abizena			
Esp. titular	Fitxamari	Berria	Betetzen			
Bikotekidea	Ezdut	Bete	Nahi			

Kide berria

Agiri honen bukaeran azalpen gehiago daukazue horri buruz.

Fitxa behar bezala osatzeko bi atal horien **galdera guztiak** erantzun behar ditugu.

Gogoratu behar dugu ezinbestekoa dela **kide guztien fitxak** betetzea banan-banan.

Seguruenik, askotan erantzun bera izango dira; hala ere, sistemak ez du automatikoki beteko, badaezpada ere.

ETXKOAK | BIZIKIDETZA-UNITATEKO KIDEA | Mantentzea | Ebeko-unitatearen zk. : 198001011DADE0105901

Oinarritiko datuak | Datu soziobiografikoak | Arreta eta balorazio arrazoiak

Gizarte-fitxa

Espedientearen udalerrria: VITORIA-GASTEIZ - ALAVA

Nazionalitatea

- Atzerritarra ez dena
- Udal berekoa
- EAeko beste udalekoa
- Beste autonomia-erkidegokoa
- Nazionalitate bikoitza
- Atzerritarra
- Herrigabe

Ostatu- eta etxebizitza-egoera

- Familia-ebebizitza edo -bizileku partikular
- Familiako infraestruktura partikular batean bizi da
- Bizileku kolektiboa: erakundez kanpokoa
- Bizileku kolektiboa: instituzionala
- Ostaldulekun gabe

Bizikidetzat

- Instituzionala edo bizileku kolektiboa
- Kide bakarreko etxea
- Bizikidetzat-taldearekin

Adierazleak diagnostikoarentzat

★ 3.1 6 Errolda

- Zer udalerritan bizi den, gizabanakoa han dago erroldatuta
 - Espedientearen udalerrian dago erroldatuta
 - Lurralde historikoko beste udalerriri batean dago erroldatuta
 - EAeko beste udalerriri batean dago erroldatuta
 - Beste autonomia-erkidego bateko udalerriri batean dago erroldatuta
- Erroldatzeko zailtasunak / Iburazko erroldatzea
- Ez dago erroldatuta

★ 9.A.1 15 Harremanak izateko eta komunikatzeko oinarritzeko abileziak

- Baditu eta ballatzen ditu
- Zailtasunak dauzka, eta gubi ballatzen ditu
- Ez ditu ballatzen

1. Nazionalitatea

Atzerritarra ez bada, oro har, pertsonak udal berekoak izango dira. Fitxaren edukia erabaki zenean, gainontzeko ñabardurak kontuan izan genituen, badaezpada ere.

Edozein kasutan, pertsonari informaziorik baino ez badiogu eskaintzen, beste herri batean erroldatuta dagoelako, ez dauka zentzu askorik fitxa betetzea. Beharrezkoa izanez gero, dagokion oinarritzeko gizarte zerbitzuan alta emango diote.

Atzerritarra bada, fitxak oso oinarritzeko informazioa emango digu. Askotan, garrantzitsua da ezagutzea pertsonaren jatorria; batez ere, nazionalitatea lortzen bada.

Nazionalitatea

- Atzerritarra ez dena
- Udal berekoa
- EAeko beste udalekoa
- Beste autonomia-erkidegokoa

- Atzerritarra
- EB, Europar Batasuna
- EBekoa ez dena

Kasu horietan, informazio osoa izateko, oinarritzeko datuen pantailako berdez markaturik dauden galderak bete beharko dira (aurreko orrialdean duzue irudia):

- Identifikazio agiri berria NANA izango da. Datu hori ezinbestekoa da aplikazioan.
- Jatorria eta jaioterri atalak. Datu horiek, berriz, aukerakoak dira.

Datu horiek guztiak sartzen badira, aplikazioaren edo Gizarte Zerbitzuen Informazio Sistemaren bidez, estatistikak eskura izango ditugu.

2. Ostatu- edo etxebizitza-egoera

Fitxak honako 5 aukera hauek eskaintzen dizkigu:

Ostatu- eta etxebizitza-egoera	
<input checked="" type="checkbox"/>	Familia-etxebizitza edo -bizileku partikular
<input type="checkbox"/>	Familiako infraetxe partikular batean bizi da
<input type="checkbox"/>	Bizileku kolektiboa: erakundez kanpoko
<input type="checkbox"/>	Bizileku kolektiboa: instituzionala
<input type="checkbox"/>	Ostatulekurik gabe

Galderaren helburua da jakitea nola bizi diren: heuren kabuz, edo beste batzuekin batera. Hala ere, aplikazioak informazioa 4.1 adierazlera pasatuko du, ahalik eta ñabardura handienekin, honako jarraibide honen arabera:

FITXAREN ERANTZUNA	4.1. ADIERAZLEA	
	Lehen mailako erantzuna	2. maila
Familiako etxebizitza edo bizitoki partikularra	1.a	¿? hainbat aukera
Familiako infraetxe partikularra	3.a	2.a
Erakundez kanpoko etxebizitza kolektiboa	2.a	1.a
Etxebizitza kolektibo instituzionala	2.a	¿? bi aukera
Bizitokirik ez du	3.a	¿? hainbat aukera

Lehen erantzuna beti beteko da, bigarrena ahal izanez gero, erantzuna nabaria bada, hots, bigarren eta hirugarren aukeretan.

Atal honetan zalantza nagusia izaten da nola ulertu behar dugun pertsonen egoera bizikidetzaren unitate batzuk batera bizi badira: etxebizitza partikularra edo erakundez kanpoko bizileku kolektiboa?

Diagnostikoko ereduaren **4.1 adierazleak** argitzen du zeintzuk diren erakundez kanpoko bizileku motak, irudian dituzuenak:

Ostatulekua	<input checked="" type="checkbox"/> Familia-etxebizitza edo -bizileku partikular batean bizi da
	+ <input checked="" type="checkbox"/> Bizileku kolektibo batean bizi da
	+ <input checked="" type="checkbox"/> Erakundez kanpoko bizileku kolektibo batean bizi da
	<input type="checkbox"/> Pentsio batean
	<input type="checkbox"/> Ostatu edo apopilo-etxe batean
	<input checked="" type="checkbox"/> Familia-etxebizitza edo -bizileku partikular batean bizi da beste hainbatekin
	<input type="checkbox"/> Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak ordaindutako bizileku batean
	+ <input type="checkbox"/> Bizileku instituzional kolektibo batean bizi da
	+ <input type="checkbox"/> Bizileku instituzional kolektibo batean bizi da, baina mugak ditu

Adibide baten bidez aldea argiago ikusten da:

- Unitate bat — bikotea eta bi ume— bakarrik bizi da pisu normal batean: markatuko genduz lehen erantzuna (irudian **borobiltxo berdea** duena), etxebizitza partikular batean bizi direlako.
- Bikotea eta umeak bizi badira beste unitate batekin —aitaren anaia eta bere familia—: bigarren erantzuna (**borobiltxo gorria**) egokia izango litzateke, pisua kolektiboa da baina ez daukalako zerikusirik instituzioekin.

3. Bizikidetza-taldea

Galdera honek zerikusia dauka aurrekoarekin. Orain jakingo dugu nola bizi den pertsona bakoitza, bakarrik edo taldean:


- Instituzionala edo bizileku kolektiboa: pertsona batzuk edo askorekin batera, instituzio edo hotel / pentsio batean dagoelako.
- Kide bakarreko etxea: bakar-bakarrik bizi da.
- Bizikidetza taldearekin: bizikidetza unitate baten kidea da, eta pertsona horiekin bizi da. Agian, unitate bat baino gehiago batera egongo dira etxebizitza berean, 2. puntuko adibidean gertatzen zen moduan.

4. Errolda

Erroldaren gaineko galdera eta hurrengo diagnostikoaren adierazleak dira. Horregatik dauzkate zenbakiak eta izartxo urdin hori:

- Izar urdinak esan nahi du galdera hori erabiltzen dela gizarte bazterkerian balorazioa egiteko.
- Lehen zenbakia (erroldaren kasuan 3.1) da galdera horrek duen ordena gizarte diagnostikoaren baliabidean.
- Bigarrenak (erroldan 6) esan nahi du non dagoen galdera bera bazterkeriaren kasuan.

Fitxan markatzen dituzuen erantzunak zuzenean pasako dira diagnostikoaren atalera eta, ondorioz, behar izanez gero, bazterkeriaren baloraziora.

Adierazleak diagnostikoarentzat			
★	3.1	6	Errolda
		<input checked="" type="checkbox"/>	Zer udalerritan bizi den, gizabanakoa han dago erroldatuta
			Espedientearen udalerrian dago erroldatuta
		<input type="checkbox"/>	Lurralde historikoko beste udalerrri batean dago erroldatuta
		<input type="checkbox"/>	EAEko beste udalerrri batean dago erroldatuta
		<input type="checkbox"/>	Beste autonomia-erkidego bateko udalerrri batean dago erroldatuta
		<input type="checkbox"/>	Erroldatzeko zailtasunak / Itxurazko erroldatzea
		<input type="checkbox"/>	Ez dago erroldatuta

Erroldatuta badago, nazionalitatearen kasuan gertatzen den moduan, fitxa beteko dugu pertsona erroldatuta dagoen herrian; beraz, pertsonak ez badu arazorik erroldari dagokionez, oro har, lehen aukera zuzena izango da.

Profesionalaren ustez beharrezkoa bada beste udalerrri batean erroldatuta dagoen norbaiten fitxa betetzea, egin dezake. Kasu horietan, oso garrantzitsua da kontaktua izatea beste udalerrri horren profesionalekin, beharrezkoa bada, espedientea transferitzeko.

Erroldaren gaineko arazoak hurrengo erantzunetan jaso ditzakezue:

- **Erroldatzeko zailtasunak / Itxurazko erroldatzea**
 - Izapideak egiten ari da, eta aukera handiak ditu lortzeko.
 - Establezimendu kolektibo batean dago erroldatuta.
- **Ez dago erroldatuta.**
 - Garai batean erroldatuta zegoen. Orain ez du errolda-agiririk.
 - Errolda-eskaera ezetsi egingo da, ziur asko.
 - Errolda-eskaera ezetsi egin da.

Testuinguru horretan gogorazi behar dizuegu bazterkeriaren balorazioak kontuan hartzen duela lehen mailako erantzuna; hala ere, bigarrena garrantzitsua da zuek informazio ahalik eta zehatzena izateko.

5. Oinarrizko abileziak harremanak izateko eta komunikatzeko

Gizarte zerbitzuen lanerako oso garrantzitsua da pertsonaren gaitasuna azalpenak ulertzeko eta harremanak izateko. Kontuan izan beharko ditugu abilezi horiek edozein arreta edo zerbitzu antolatzeke.

★	9.A.1	15	Harremanak izateko eta komunikatzeko oinarrizko abileziak
		<input type="checkbox"/>	Baditu eta baliatzen ditu
		<input checked="" type="checkbox"/>	Zailtasunak dauzka, eta gutxi baliatzen ditu
		<input type="checkbox"/>	Ez ditu baliatzen

Diagnostikoaren esku-liburuaren azalpen orokorra gogorazi nahi dizuegu:

Adierazle honen bidez, besteekin dituen harremanetan gizabanakoa hau egiteko gai den aztertuko dugu:

- *entzuteko, elkarrizketan jarduteko, eztabaidatzeko, argudiatzeko...*
- *entzuteko, galdetzeko*
- *hitzik gabeko mezuak sortzeko*
- *errespetua, afektua eta estimua adierazteko*
- *tolerantzia jokatzeko eta besteak ulertzeko*

Erabiltzaileak erabaki beharko du, bere ustez, gizabanakoak gaitasun horiek dituen. Hala bada lehen erantzuna markatuko du. Zailtasunak neurrian baditu, bigarrena izango da egokia. Eta ez baditu inondik ere, hirugarrena zuzena izango da.

6. Arreta eta balorazio arrazoia

Taula honetan jaso dira jardueren eremu orokorrak. Erabaki zen eskematikoki laburtzea informazio orokorra izateko. Beraz, eremu bakoitzean hainbat arazo mota sar ditzakegu. Esaterako, "babesgabetasuna" izeneko atala egokia izango da umeen kasu batzuetan, edo tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen zein adinekoen kasuetan. Oro har, arazo guztiak eremu batean zein bestean koka ditzakegu.

Batzuetan, profesionalak ez dauka batere argi zein den pertsonaren beharra edo nahia nagusia. Nahiz eta gutxitan gertatu, garrantzitsua da egoera hori ere kontuan izatea. Horretarako duzue azken aukera, hau da, "hurbilbide diagnostikoa".

Aukera horren arriskurik nabarmenena da gehiegi erabiltzea, oso erraza baita hori markatzea, nahikorik pentsatu gabe. Hasierako kontaktuaren isla denez, ematen du ez daukala garrantzi handirik; hala eta guztiz ere, gogoratu behar duzue kasu bakoitzean jasotako informazioari esker eskura izango dituzuela hainbat estatistika, zuen lanaren gaineko hausnarketa teknikoak egin ditzazuen. Sartutako informazioa gaizki badago, estatistika horiek ez dute ezertarako balio.

Taularen edukia

- **Arreta arrazoia:** gizabanakoak esan diguna; zertarako etorri den zerbitzura. Atal honetan jasoko dugu zehatz-mehatz berak diona, iritzirik gabe. Horren ondorioz, administrarien zein gizarte langileen erabiltzailearekin markatuko dugu.
- **Balorapen profesionala:** gizarte langilearen ustez pertsona horrek behar duena. Harremanaren hasieran egindako lehen balorazioa da.

Beharbada, diagnostikoa eginda, gizarte langileak gauza batzuk aldatuko lituzke; baina hori ez da beharrezkoa. Askotan esan dugun moduan, fitxaren helburua da hasierako informazio orokorra lortzea. Pertsonaren gaineko informazio zehatza eta zuzena espedientean egongo da, hortik aurrera egingo diren jardueretan.

Erantzunak

Galdera bietan behar beste erantzun markatuko ditugu.

Adibidean ikusten den moduan, batzuetan profesionalaren balorazioa ez da bat etorriko pertsonak esandakoarekin.

ETXEKOAK | BIZIKIDETZA-UNITATEKO KIDEA | Mantentzea | Etxeko-unitatearen zk. : 196601012BEBE4801701

Gizarte-fitxa		Oinarrizko datuak	Datu soziobiografikoak	Arreta eta balorazio arrazoia
Arreta Arrazoia	Jarduera eremu orokorrak	Balorapen profesionala		
<input type="checkbox"/>	Gizarte zerbitzuen sistemaren gaineko informazioa	<input type="checkbox"/>		
<input checked="" type="checkbox"/>	Beste sistemen gaineko informazioa	<input type="checkbox"/>		
<input checked="" type="checkbox"/>	Mendekotasuna	<input checked="" type="checkbox"/>		
<input type="checkbox"/>	Babesgabetasuna	<input type="checkbox"/>		
<input type="checkbox"/>	Bazterkeria	<input type="checkbox"/>		
<input type="checkbox"/>	Bizitzeko baliabideak	<input checked="" type="checkbox"/>		
<input type="checkbox"/>	Gizarte-partaidetza	<input type="checkbox"/>		
<input type="checkbox"/>	Hurbilbide diagnostikoa	<input type="checkbox"/>		

AURREKO ESPEDIENTEEN FITXAK

Fitxak derrigorrean betetzeko prozedura aldatu baino lehen, espediente askotan erabiltzaileek utzi zituzten fitxa gehienak bete gabe.

Aldaketa hori egin ondoren, sistemak fitxa betearaziko du edozein jarduera egiteko. Kasu horietan, "etxeko espedientea" izeneko pantailatik lanean hasiko gara, falta den informazioa behar bezala betetzeko.

Senidetasuna	Izena	1. abizena	2. abizena
Esp. titular	Fibxamari	Berria	Betetzen
Bikotekidea	Ez dut	Bete	Nahi

Kide-zerrendan, bakoitzak du ikono hori bat informazioa aldatzeko (berdez inguratutik dagoena). Hori sakatuta honako pantaila honetara — fitxaren edukia daukana — helduko gara:

* Etxeko Senidetasuna: Esp. titular	* Altaren data: 7/29/4/20
* Izena: Fibxamari	* 1. abizena: Berria
* 2. abizena: Betetzen	* Jaiotze-data: 1/01/6/19

Lehen ikusi den moduan, oinarrizko datuen pantailako ezinbesteko datu guztiak beteta —eta gainontzekoak, nahi izanez gero—, hurrengo ataletan dauden guztiak beteko ditugu.

Horrela beteko ditugu fitxak lanaren beharren arabera. Edonola ere, fitxak betearazteko muga aldatu baino lehen, osatu gabe zeuden fitxa guztiak bilatzeko aukera bat zeneukaten sisteman. Oraindik martxan dago, baina, erabili nahi baduzue, hobe da murriztea bilaketa aurreratuan; bestela, osatu gabeko espediente guztien zerrenda aterako du, eta horrek aplikazioa blokeatu dezake, espediente kopurua oso altua bada.

Beraz, hurrengo pantailan dagoen atala sakatu baino lehen, bilaketa aurreratuan marka dezakezue epe egokia, esaterako, hurrengo pantailan ikusten den moduan:

Identifikazioa

Bilaketa erraza Bilaketa aurreratua Bilaketa berezia

BILAKETA-IRIZPIDEAK:

Lurraldea: BIZKAIA

Udalerrria: BERMEO

Kalea:

Irekitako/hasitako espedienteak: Noiztik 2013/01/01 noiz arte 2013/12/31

Espediente aktiboak: Noiztik noiz arte

Espediente ez aktiboak: Noiztik noiz arte

Horrela bilatuko ditugu 2013an irekitako espediente guztiak, eta hurrengoan, horien artean fitxa osatu gabe daudenak:

Identifikazioa

Bilaketa erraza Bilaketa aurreratua Bilaketa berezia

BILAKETA-IRIZPIDEAK:

Espediente-zk.:

NAN:

Izena:

1. abizena:

2. abizena:

Udal Esped.-zk.:

Horrela, osatu gabeko espedienteen zerrenda ikusiko duzue. Titularraren izen ondoan hiru zutabe dituzue, espediente bakoitzean zein informazioa falta den egiaztatzeko:

Identifikazioa	Etxeko espedientea	Gizarte-historiala/Esku-hartzeak	Diagnostikoa	APP	Jarraipena	Ebaluazioa	Irten
Identifikazioa ESPEDIENTEEN ZERRENDA							
	Espediente-zk.	Abizenak/Izena	Datu Soziobiografikoak	Arreta Arrazoa	Profesionala Balorazioa		
<input type="radio"/>	197511271AJLE0105901	MARISA A JOAN LE DA LA RISA	Ez	Ez	Ez		
<input type="radio"/>	197805172AAAA0100201	AA AA AA	Ez	Ez	Ez		
<input type="radio"/>	197806012AAAA4801702	AAAA AAAA AAAAA	Ez	Bai	Bai		

Atal hori osatu gabe badago, "ez" agertuko da; osatuta badago, "bai".

Administrariak espedienteak irekitzen badituzte, azken zutabea oso praktikoa da gizarte langileek hasierako baloraziorik gabeko espedienteak kontrolatzeko.

ESPEDIENTEEN BILAKETAK

Aplikazioak orain ez du onartzen bilaketa orokorrak, hau da, inolako daturik eman gabe, bilaketa horiek aplikazioa moteltzen baitzuten.

Batzuetan, aldaketa horrek dakar arazoren bat ez badugu gogoratzen nola idazten den abizenaren bat. Antzeko zerbait gertatzen bada, aprobe txatu dezakegu Gizarte.net-eko bilaketen erabilera.


Demagun herritarraren abizena dela Berria eta "Be" baino ez dugula gogoratzen, edo ez daukagu argi nola idazten den. Abizenaren hasiera bakarrik markatzen badugu, sistemak bilatuko du gure herrian dauden espediente guztiak hasiera horrekin.

Identifikazioa

Bilaketa erraza Bilaketa aurreratua Bilaketa berezia

BILAKETA-IRIZPIDEAK:

Espediente-zk.:	<input type="text"/>
NAN:	<input type="text"/>
Izena:	<input type="text"/>
1. abizena:	<input type="text" value="Be"/>
2. abizena:	<input type="text"/>
Udal Esped. -zk.:	<input type="text"/>



Bilaketa gehiago errazteko, era berean marka dezakegu epe bat "bilaketa aurreratua" atalean, sistemak bi pantailen informazioa batera erabili duelako espedienteak bilatzeko.

Identifikazioa

Bilaketa erraza Bilaketa aurreratua Bilaketa berezia

BILAKETA-IRIZPIDEAK:

Lurraldea:	<input type="text" value="BIZKAIA"/>
Udalerrria:	<input type="text" value="BERMEO"/>
Kalea:	<input type="text"/>
Trekitako/hasitako espedienteak:	Noiztik <input type="text"/> noiz arte <input type="text"/>
Espediente aktiboak:	Noiztik <input type="text" value="2014/01/08"/> noiz arte <input type="text" value="2014/11/04"/>
Espediente ez aktiboak:	Noiztik <input type="text"/> noiz arte <input type="text"/>
Sexua:	<input type="radio"/> Gizona <input type="radio"/> Emakumea
Adina:	Noiztik <input type="text"/> noiz arte <input type="text"/>
Jatorria:	<input type="text" value="Aukeratu bat"/>
Erreferentziako profesionala:	<input type="text" value="Aukeratu bat"/>

Bi pantaila horiekin, sistemak bilatuko ditu "Be" abizenak zerbait egin badugu espediente horietan markatutako epean. Gauza bera egin dezakegu bilaketa aurreratuaren gainontzeko atalekin.

Identifikazioa ESPEDIENTEEN ZERRENDA						
	Espediente-zk.	Udal Esped.-zk.	NAN	Abizenak/Izena	Helbidea	Telefonoa
⊙	196005051AUBE4801701	JK063	5745241	Ausarta Benetan, Probalari	Artieda tar Iñigo Nº-10	4581231
⊙	196601012BEBE4801701	JK066	85254523	Berria Betetzen, Fitxamari	Almika Nº-5	215214521
⊙	197105121BENA4801701	JK069	8525421	Bete Nahi, Ezdut	Akurio Kontramaisu (Kalea/Calle)	

Herria ere markatzea garrantzitsua da zuen erabiltzailea baliagarria bada herri bat baino gehiagotan lana egiteko, mankomunitateetan gertatzen den moduan.

Ikusten duzueenez, hiru pantaila horiek segidako bilaketak egiten dituzte, sistemak hiruetan dauden datuak jarraian erabiltzen baititu, beharrezkoa izanez gero.